

GAZTEAK, ZAHARRAK ETA BIZI-AZTERKETA (BROOKDALE EGITASMOARI BURUZKO TXOSTENA)

1984eko maiatzean, Adinekotzeari buruzko Brookdale Zentroak mailegu bat jaso zuen John A. Hartford Fundaziotik belaunaldien arteko bizitza-historia lan bat burutzeko New York hiriko gazteez eta adinekoez baliaturik. Egitasmoaren iraumena bi urte eta erdikoa izango zen eta behar izenez gero luzatzeko aukera izango zuen. 1987ko irailean Egitasmoa amaitzean, 103 bat gaztek (13-19 urte bitartekok) 447 adinekori eginak zizkieten elarrikusteak etxe pribatu eta gerontologi erakunde sail zabal batean zehar.

JOMUGA ETA HELBURU NAGUSIAK

Bi eratako emaitzak espero ziren egitasmotik: bizi-historiak jasotzeko elkarrikusteak egitearen *prozesutik sortuko ziren emaitzak* eta *emaitz ukikorrek* egitasmoaren irauten-epeaz geroztik ere esperientziaren fruituak zabaltzen jarraitzeko modukoak.

Prozesuaren helburuak honako hauek ziren:

- Adinekoei-gehienbat isolaturik eta osasun makalarekin bizi zirenei-oroitzapenak gogora ekartzeko eta beren bizi-historiak kontatzeko aukera eman.
- Adineko isolatuei gaztejeondearekin harremanetan jartzeko premiari erantzun, becardade, harremanik eza eta depresiozko sentimenduak gainditzen lagunduz eta kanpoko munduarekiko harremanak sendotuz.
- Gazteei eskola eta lanerako prestatzen lagundu oinarritzko trebetasunak

lantzeko aukera eskainiz: idatzi, elkarrikusteak egin, titularrak atera, informazioa antolatu, zinta editatu, kritika eraikitzaile burutu eta abar.

- Gaztejeondeari rol-ereduak eta jarraitbideak eskaintzea: adinekoen historiek erantzukizun, heldutasun eta jasamen-exenpluak eman beharko zizkiekeen, eta baita ikuspegi historikoa ere gazteriaren betiko presentetik irte-ten laguntzeko, horrela mundu zabalago baten prozesu politikoetan erantzunkizun handiagoarekin parte hartzen ikasteko.
- Ondare etnikoa eta kultur altxorren eskualdaketari lagundu gazteak eta zaharrak elkarrekin bizi-historia egitasmoetan lan egiteko aukera eman.
- Zahar eta gazteei elkarrenganako jarrera positiboagoak hartzeko aukera eskaini elkarreagintzaren bidez eta egitasmo emankomunean parte hartuz.
- Adineko bakoitzari bere obra daukan antologiaren kopiak eman eta elkarrikustearen zinta bat berak erabiltzeko eta ondorengo belaunaldiei eskuratzeko.
- Adinekoei bizi-azterketazko prozesuen bitartez gatazkak konpontzeko eta asimilatu gabeko bizi-esperientziak integratzeko aukera eman; beren bizitzak osotasun bezala ikusten lagundu bizi zireneko histori epearen testuinguruan.

Bestalde egitasmoa emaitza ukikorrek sortzeko ere diseinaturik zegoen, horrela gero

antzeko beste egitasmo batzuk errepikatze-ko, oroitzapenek adinekoekin lan egiteko lanabestzat duten garrantzia agerian jarritz. Berauen artean honako hauek zeuden:

- *Bizi-historiaren bideo-zinta*. Brooklyn Television Center-ekin lankidetzan Brookdalek bideo-zinta bat ekoiztu zuen belaunaldien arteko bizi-azterketazko lanarekin.
- *Bizi-istorioen eskuliburua*. Egitasmo honen puntu garrantzizkoenetako bat zen.
- *The Journal of Gerontological Social Work* (Gizarte-lan Gerontologikoaren aldizkaria) Argitalpen hau egitasmoaren emaitza ukikorretako bat zen.
- *Antologiak*. Egitasmoan zehar antologiak sortu genituen elkarrikusteetatik jasotako material hautatuekin.
- *Ebaluaketa*. Urte eta erdi igaro ondoren, egitasmoaren ebaluaketa formal bat burutu zen.

EMAITZA NAGUSIAK

Ondorengo lerroetan egitasmoaren alderdirik garrantzizkoenak azpimarratuko dira, izan ere interesgarri gerta bailitezke belaunaldien arteko bizi-azterketa alorrean dihardutenentzat.

Erakunde lankideen hautapena

Egitasmoan zehar gero eta garbiago agertu zen zenbaterainoko garrantzia zuen proiektuaren arrakasta edo porroterako erakunde lankideak hautatzeak. Hautapen hau ez zen arrakasta edo porrotaren kausa bakarra, baina zenbait kasutan erakundea behar bezala ez hautatzeak dirua eta denbora alferrik galtzea izan zuen ondorio. Belaunaldien arteko bizi-historia lanerako erakunde geriatriko guztiek ez dutela balio berdina konturatu ginen, gutxienez guk nahi genuen kalitaterako, nahiz eta batzuetan sona handikoak izan. Esperientzia hartu ahal konturatu ginen egitasmoak hobeki funtzionatzen zuela pertsonal partehartzaileak egitasmoak bere populazioaren onerako balio izatea nahi izaten zuenean. Egitasmoa lan estra eta higuigarri bezala ikusten zuten tokietan, inpaktoa izugarri murrizten zen eta zenbaitetan hutsera etorri ere bai.

Erakunde geriatriko handiagotan departamendu bat baino gehiago inplikatzeko beha-

rezko ikusi genuen —gizarte-zerbitzuak, olgeta, borondatezkoak, otordu-zerbitzua-ahalik eta emaitzik hoberenak lortzeko. Labur esateko, egitasmoak primeran funtzionatzen zuen zuzendariak, departamendu-buruek eta laguntzaileek egitasmoaren garrantzia ulertu, helburuak eta metodoak onartu eta aktiboki aurrera atera nahi zuten kasuetan.

Atal guzti hauek, zein bere lekuan ez badaude, gauzek gutxi edo ia batere ez dute funtzionatzen. Aste batean adinekoak prest egoten dira elkarrikusterako, baina hurrengo astean txangoa egitera joan direlako edo beste zerbaitengatik kanpoan aurkitzen dituzte.

Partehartzaile guztiak lankidetzari ari izatea da funtsezko gauza. Bezeroei egitasmoa azaltzeko prest egon behar dute, borondatezkoen zerrendak egiteko, grabazio-zinten hornidura izateko, zitak prestatzen laguntzeko, elkarrikusteak egiteko toki lasai samarrak bilatzeko eta aurrez ikusten ez diren arazoak gogo onez konpontzen laguntzeko. Gainera erne eta prest egon behar dute elkarrikusteak adinekoengan albo-eragin higuigarri izan ez dezan. Lankidetzari guzti hau lortzerik ez badago, beste norabait jotzea da soluzioa, ahal izanez gero behintzat. Badago bide miresgarriagorik ere: giltzarri diren pertsonengan hasieratik behar den zaletasun eta suharra txertatzea, baina hau neketsua da. Makurrena pertsonal hotz edo kontrakoa dagoen tokian egitasmoa aurrera eramanez nahi izatea da.

Beste partehartzaile helduen erreklutapena

Zuzendaria eta pertsonala egitasmoaren alde dauden erakunde geriatrikoetan ez da zaila izaten borondatezko partehartzaileak aurkitzea. Gauzak zailagoak izaten dira etxeetan dauden adinekoekin. Barnetegietan pertsonalak intuizioz jakiten du norengana harbildu elkarrikustea egiteko eta norengana ez. Honelako erabakiak hartzea eguneroko errutinaren parte bat da. Etxean bizi diren askok, bestalde, baliteke hilabete osoan harremanik ez izatea bezeroaren egoera mental edo emozionala ongi samar ezagutzen duen gizarte-langile edo beste profesional batekin. Gainera, zail samarra da elkarrikusteprosesua jarraitzea, baita erreakzioak ere sortuz gero.

Prozesu osoaren integritatea babesteko eta nahi ez diren emaitzetatik libratzeko, egitasmoaren zuzendariak ezarri zuen partehartzaile guztiek —erakunde barrukoak zein



kanpokoak— geriatri profesional batekiko harremanean egon behar zutela edota haren sarrria zuen familiako senideren batekin. Elkarrikustearen osteko prozedurari era garrantzia eman zitzaion (telefono-deiak, bisitak) eta erreferentziako pertsona horrek adi egon behar zuen gertaera negatiborik sor ez zedin elkarrikustearen ondorioz.

Butler-ek esaten duenez, bizi-azterketaren ondoriozko emaitza eraikitzaileak ez dira beti berak izaten eta batzuetan depresioak, izadura-egoerak, erruduntasun handiak eta atergabeko hausnarketa obsesiboak sor litezke oroitzenak gogora ekartzearen ondorioz. Horregatik, egitasmoaren helburua "terapeutikoa" ez zelarik zentzu klinikoan borondatez aurkeztu ziren mentalki eta emozionalki pertsona egonkoiekin lan egitea hautatu zen.

Prozedura hauek jarraitzekoan, muga "normalen" barruan mugitzen zen jendea soilik erreklutatu zen. Elkarrikustea egiteko garaian atzematen zituen erreakzio edo portaera nabarmen edo desbideratuen berri instruktoreari jakinerazteko gomendioa egiten zitzairen elkarrikuste-egileei. (Jakina, aurretiaz lanean ari ziren ikasle guztiei esan zitzairen zer egin behar zuten etxeetan zeuden adinekoak gaixotu, negarrez hasi, bapatean elkarrikustea jarraitu nahi ez bazuen edo beste arazoren bat adieraziz gero).

Partehartzaileen galbaheketa arretatsu honen bitartez eta elkarrikusteen garapena gainbegiratu eta bisitak egokiro amaitzeko eraz ikasleak trebatuz eta elkarrikustearen osteko telefonozko eta bisitazko segimenduen bitartez emaitza negatibo bakarrik ere ez izatea lortu zen ehundaka elkarrikuste egin eta gero. Pertsona bakar bat ere ez zen "porrokatu" elkarrikustea egin eta gero.

Gazteen erreklutapena eta berauekiko lana

Egitasmo honen hasieran oso giro sozial, etniko eta instituzional ezberdinetako lau gazte-talderekin lan egitea hautatu zen. Guztiak borondatezkoak ziren New York Hiriko Borondatezko-Gorputzetakoak izan ezik eta hauei ere beren asteroko eginbeharren artean Bizi-historia lana burutzeko aukera eskaini zitzairen.

Lau taldeetarik hiruk soldata edo eskupeko modukoren bat hartu zuten egitasmoak esku hartzeagatik. Baina abandonuei dagokienez oradaindu eta ordaindigabeen artean portzentaia berdintsuak gertatu ziren: %8-12 talde guztientzat. Gainera badirudi, ordaindurik lan egiteak ez zuela erreklutapena nabarmenki erasan. Arretaz bada ere esperientzia honetatik atera daitezkeen ondorioak dira, aurrena gazte batzuek ez dutela nahi izaten honelako lanik egitea (nahiz eta

aurretiaz zehatz-mehatz egitasmoaren berri eman) eta bigarren abandonuen portzentaia berdintsua dela ordaindu eta ordaindugabeen artean.

Esperientzia burtu dutenek diotenaren arabera honako puntuak kontutan izatea-koak dira: ez da ikaslerik behartu behar elkarrikusteak egitera baldin eta eragozpenak agertzen baditu, ez da inolako zigorrik eman behar programa hasi eta norbaitek bertan behera uzten badu eta ez da ikaslerik desanimatu behar lana uztetik, benetan alde egiteko gogoazaltzen badu. Baina ikasle lotsati edo herabetien kasuan garrantzizkoa da hasieran bihotz eman eta adoretzea, zeren eta sarritan ikasle hauek baitira probetxu eta etekinik handiena ateratzen dutenak honelako esperientziatik. Oro har, zenbat eta ikasleak egitekotsuago ziren beren bizitzetako beste alor batzuetan, ahinbat garrantzizkoagoa izan zen egitasmoa ongi antolatzea eta gidaritza eraginkor baten azpian ezartzea. Hutsune hau gertatu zen tokietan gazteak gogogabetu eta desadortu egin ziren. Honek hasieratik kerakunde guztien partaidetza lortzearen eta administrazioen konpromisu erabatekoa eskuratzearen alde hitzegiten du. Laguntza-taldearekiko lotura estu eta eraginkorra izatea funtsezkoa du gazteak bere lana egoki burutzeko.

Gaztea adinekoarekin topatzearen magia

Zer gertatzen zaie gazteari eta adinekoari honelako egitasmo batean topo egitean? Ebaluaketa formal zaila den arren, saio gehienetan zahar eta gazte, alde biezako abantailak sortzen dira. Gainera, informazio hoberena partehartzaileen txosten, elkarrikusteen bideo-zinta, pertsonalaren ohar, gertaera eta ebaluatzaileek gutxitetsi behar ez duten beste "iturburu subjektibo" batzuetatik sortzen da.

Jakina, gazteak agertzen dira estereotipo gutxienekin adinekoei buruz pentsatzeko orduan eta adinekoek esaten dute "ez zutela uste hainbeste mutil jator zegoen hor zehar". Hau ez da harrizkoa, zeren eta bi taldeek munduaz dituzten ideiak komunikabideen distortsioetatik jasoak baitira eta normala da horrelako aurreritziak izatea.

Esperientzia honen arabera gazteak beren "presentismoa" eta adoleszentzian hain ezaguna den auto-obsesioa gaingiditzen laguntzen dieten bizi-historietan sartzen dira, gizarte eta emozio-heldutasunerako bideak irakiz.

Beste emaitza garrantzizkoetako bat lekuko edo testigu bizien bitartez giza iza-

tea eta historiaren berri ikasteko ikasleek aukera izatea da. Hona hemen zinta batean ageri den 84 urteko judu baten istorioa. "Manny" Ameriketara iritsi zen 5 urte zituela, aita iritsi eta handik lau urte eta erdira. Berezko atleta izaki, St. Mary's Churcheko ekipoan sartu zen eta bertan postuetarako hoberenak zirelako irlandarren ekipoan mutil juduak ezartzen zituen entrenatzaile "jator" batekin topo egin zuen. Hona hemen bere elkarrikustetik jasotako atal bat:

"Andre Mariaren eliza bat zegoen han, eta bertan Bob izeneko tipo bat, eta saskibaloiekipoa antolatzen hasi zen, gogoan dut. Eta ni nola oso atletikoa nintzen, handik urte pare batera, ordurako ingelesez hitzegiten ere banekien eta nahikoa ongi moldatzen nintzen eta ekipoan sartu nintzen irlandarrekin batera. Bi mutil judu soilik zeuden bertan eta elizan elkartzen ginen eta -Bob izaten genuen entrenatzaile eta toki ezberdinetan aritzen ginen jokatzeko. Poliziaren Liga Atletikoarekin jokatzera joan ginen, beraien kontra jokatu genuen. Baina Bob hau oso jatorra zen. Esaterako hasten nintzen kokagune egokiaren bila... eta besteren bat ere hasten zen —tipo batek uste zuen bera hobea zela— badakizu nolakoak izaten diren mutikoak. Baina Bobek esaten zuen, eseri, bera hobea duk posizio horretarako Beraz ezinikusiak sortzen ziren han, baina halere bazegoen kirolzaletasuna. Bobek hitzegiten zuen eta dena amaitzen zen. Eta 12 eskola publikoa itxi egin zuten, ni seigarren mailan nengoela eta aurrerapen bizkorrekoen klasera eramanez ninduten (hala deitzen zioten). Henry Streetko 147 eskolara joan nintzen. Ordurako Blackie bezala ezagutzen ninduten eta ordurako bertako saskibaloian ekipoan sarturik nengoan. Ni neu primeran aurkitzen nintzen, ze atleta bat nintzen eta eskolan ere oso ongi nengibilen.

...Lan bat lortu nuen eskola ostean egiteko Clinton Streeteko Odeon Teatroan, karameluak, sagarrak eta saltzeko ematen zidaten edozer salduz, eta komisiora lan egiten nuen. Nik beti izan nuen saskibaloiko baloi bat izateko irrika. Azkenean bi dolar aurreztu eta baloi bat erosi nuen. Etorri zen aita eta esan zidan alferrek soilik jokatzeko dutela baloian eta hartu baloia eta ebakiak egin zizkion. Hiru astez lan egin nuen baloi hura erosteko. Sekula ez dut ahaztuko gertatua. Munduko tiporik ziztrinena zela pentsatu nuen aita. Harrez gero ez nuen tratirik izan berarekin. Hasteko sekula ez genuen harreman handirik izan, ze lehen bost urteetan ez bainuen ezagutu, baina ezagutu nuen dakidana da aretora sartzen zela, erdie-tan moskurturik etortzen zen, eta baloia eba-

ki zidanean, nire bizitza guztia, zera, ez zen ez barkatzea egin zidana, baina ez nuen inolako traturik berarekin. Pentsatzen nuen sentimendurik gabea zela. Eta horegatik... ama eta biok... ongi konpontzen ginen, eta aita ezezagun bat izan zen urte guzti haieran, inoiz ez zen esertzen eta hitzegiten jartzen nirekin, aita eta semea bezala, ze beti oso lanpeturik ibiltzen baitzen bere laguntzarrekin, baina baloiarena... ez dut sekula ahaztuko. Bestela esateko, ez zuen ulertu... aldi berean izugarri maite niduen, nonbait, zeren eskola ostean batzuetan yes-hivara joaten nintzenean, Henry Streeten dagoenera, eta behin rabbiari galdetu nionean 'Zer da Jainkoa?', mutil koskor bat nintzelarik, orduan rabbiak hartu erregela handi bat eta egundoko zartada eman zidan eta honelaxe handitu zitzaidan eskua. Galderari erantzun beharrean, eskuan jo ninduen. Aita hura ikustean lasterka joan zen eskolara, irakaslea akatu egingo zuela esanez, egia. Irakaslea ihes egin zuen, hilabetean ez zen handik agertu. Baina ondo modu burugabea zen gauzak irakasteko zeukana. Amak esan ohi zidan. 'Rabbiak jo bahau, merezia izango hune'.

Galdera bat besterik ez niola egin esan nion, nor den Jainkoa, zer den, ez dudal ikusten. Uste dut hura galdera bat zela. Baina erantzuna huraxe jaso nuen. Beraz asko maite izan behar ninduen, hainbeste sentitu zuenean. Gerora konturatu nintzen zenbat sentitu zuen nire eskua hala handituta ikustean Beraz esango nuke zeukaten heziera erabat ezjakina zela. Hasteko bizi-modu gogorra zuten, lanean aritzen ziren eta gogor gainera kamioi batean, irin-zakuak garraiatzen. Gero etxera iristean ez zuen haurrentzat astirik izaten. Kampora irteten zen beste kamioilari batzuekin edatera eta gero itzuli egiten zen. Handik apur batera aretora joaten zen. Haurok kanpoko gauza bat bezala ginen berarentzat. Seguraski maite zituzten beren seme-alabak beren modura, baina ez zuten ulertzen, ez zituzten ulertzen haien premiak, hara. Nola eskolan oso ona nintzen, institutura joan nintzen, baina utzi egin behar izan nuen, ezin izan nuen amaitu ez baitzegoen dirurik, eta han ez zegoen laguntzarik, ez nahi ez gintuztelako baizik... beraz lanbide bat ikasteari ekin nion aldi berean, ulertzen al duzu zer esan nahi dudan? Neure kirola eta antzeko gauzekin jarraitu ordez etxekoei laguntzen hasi behar izan nuen, dolar batzuk ekartzen. Eta hori izan zen nire haurtzaroa."

Ikasle batek Mannyren tamainako kontalari bat aurkitzen duenean gauza baliotsu ugari gertatzen dira eskuhartzaileentzako berehalako onuraz gainera.

Aurrena, taldeak aukera ezinobea du Lovver East Siden bizi zen eta irlandar mutiko sendoei aurrea hartzen zien mutiko judu bati buruzko istorio interesgarria entzuteko. Zintak lehen pertsona kontaturiko gizarte-historia liluragarria eskaintzen du inmigrariaren esperientzia eta asimilazio-prozesua ulertzeko garrantzia duena. Kontakizun gutxik erakusten dute hainbesteko argitasunarekin judu inmigrariaren artean zegoen amerikar atletismoaren aurkako higuina mendearen hasiera aldera. Baloi ebakia, esaterako, historialari sozialentzat istorio klasikoetako bat da eta balio handikoa ikasgelako irakasleentzat ere.

Eta Gizarte-historiaz gainera historia psikologikoa dago: Mannyk aitarekiko zeukan gatazka konpondugabearena, elkarrikusteak halako indarrarekin agerian jartzen duena.

Istorio honetan oroitzapen-prozesua dela-eta Butler-ek proposatzen dituen puntuetako batzuk bete egiten direla esan genezake. Partehartzaile guztiek, instruktorea bane dela, psikologi ikaskizun baliotsua ikasten dute Mannyren —eta agian gu guztion— hurbileko jendearen sentimendu gatazkatsuen konponketaz. Adoleszente batzuk prest daude mezua entzuteko, beste batz'jk ez daude baina, baina agian denborarekin baliozko gerta lekizkieke gisa honetako istorioak.

Mannyrentzat gozamina eta idartzea esan nahi zuen elkarrikustean parte hartzeak. Askizun ikustea nolako gustuaz eta beneasunez parte hartzen zuen. Garrantzi handikoa zen berarentzat aitari buruzko elkarriketa. Oro har, pertsona egokitua zen, 80 urterekin berriz ezkondu zen zoriontasunez eta oso pozik zegoen bizitzaz eta ahaleginak egiten zituen gatazkari konponbidea eta barkabideak aurkitzeko.

Puntu honetan histori lanaren mugaraino iristen gara egitasmo honetan lantzen zenez. Terapeuta batek aurrera jarraituko zukeen aitari buruzko istoriarekin. Ikasleak ez, eta seguraski hobe zen hala izatea. Iniziatugabeek ez lukete terapia egiten sartu behar bizi-histori lanetan. Baina gutxienez susmo bat izan dezakegu: Mannyk orain bere aitaz zerbait gehiago dakiela lehen "harrapatzen" zuenaz gainera. Emaiza terapeutiko bihurtzen bada, hainbat hobeki.

The Young, the Old, and the Life Review: Report on Brookdale Project. Robert Disch, Egitasmoaren Zuzendariak idatziriko artikularen Xabier Mendigurenek buruturiko itzulpen-moldapena. "Journal of Gerontological Social Work". Vol. 12. n.º 3/4, 1988.